



MUSIKA

Motibazioaren zirrikituak



IKER BARANDIARAN

Sorkari 2017an Iruñerrian sortutako musika talde gaztea da, atzo bertan sorpresaz deskubritu eta orriotara ekarri dudana. 2018an hasi ziren zuzenekoak ematen eta 2020an –pandemia bertean– argitaratu dute honako diskoa, beraien ibilbideko lehena. Badute meritua, egiten duten horretan sinesten dutelako.

Harritu nau nabarmen taldearen soinuaren irmotasunak, ahotsaren indar eta gardentasunak, baita pose eta tribuetatik harago, taldekideek duten look sobrioak ere, tendentzia edo sonoritate jakinekin lerrokatzen ez dena. Azken hori da garaiak aldatu diren seinale argia, akabo lerrokatze eta “mozorroak”.

Gazteak badira ere, izan dituzte bes-telako musika esperientziak eta gaur

egun oraindik ere haietako bi Lubaki (Adrian) eta Skabidean (Lorena) musika taldeetan ari dira, baina arras desberdinak guztiak. Dena den, gogo handiz hartu dute Sorkari eta disko borobila kaleratu dute. Dena den, kon-tuz, Lorenaren ahots ikaragarria gai da taldearen indarra eta emaitza instrumental konpaktua estaltzeko, adi oreka horri.

Ez aldarri argia da, mihian inongo ilerik utzi nahi ez duena, eta soinuari dagokionez Buenawixta punk-rock eskolan erraz asko erditu ahal zitekeena. *Ikusleari* gitarreroagoa da, ez hain bortitza eta hard-rocketik ere edanez hit-a bihur daiteke. *Astunegi* azkarra eta indartsua, erritmo bizikoa, baina azalean



HUTSUNE

SORKARI

AUTOEKOIZPENA

darama zama malenkoniatsua itsatsita. *Mila aukera*-k badu abiadura itzeletik eta melodiatik, Discipulos de Dionisos eta Screaching Weasel oinarri balitu moduan. *Kilima* stonerra da, pisutsua eta Lorenaren ahotsa desertuan barre-na luzatzen eta kiribiltzen; ederra! *Zer arraio*-k oinarri indartsu, ia industrialia eta rockeroa dauka, eta nire burua ia “Sua, sua” oihuka ikusi dut Kuraia gogor-araziz. *Lehen platera*-k dauka Cosmic Psychos-en *Lost Cause*-en riffa baina 1977ko punk-rock azkarrenean amiltzen da gero. *Hutsune* punk-rock-and-roll oso gitarreroa da. Eta azkenik, *Gidoia*, 80ko hamarkadako ukitu zirika-tzailea daukan punk-rock eta hard-rock koktela. ●